

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 563/2019 Erabakia, irailaren 17koa. Arabako Domina ematea Arabako Medikuen Elkargoari, aitortzeko haren mendebeteko ibilbidea eta medikuen profesionaltasuna eta deontologia bermatzeko Arabako Lurralde Historikoan egin duen lan goresgarri eta emankorra

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du Arabako 2019ko Domina Arabako Medikuen Elkargoari ematea, aitortzeko haren mendebeteko ibilbidea eta medikuen profesionaltasuna eta deontologia bermatzeko Arabako Lurralde Historikoan egin duen lan goresgarri eta emankorra.

Arabako Medikuen Elkargoa 120 urteurrena ospatzen ari da. Elkargoa 1898ko azaroaren 5ean sortu zen, eta, egun, ekarpenak egiten jarraitzen du Arabako gizartearen ongizatearen alde.

ICOMA zuzenbide publikoko erakundea da eta lanbide jarduera kontrolatzeaz eta arautzeaz arduratzen da. Erakundearen xede nagusia da lanbide jarduera beharrezko berme guztiekin gauzatzen dela zaintzea, herritarrek arreta egokia jaso dezaten.

Elkargoaren egiteko nagusia lanbidea eta profesionalak defendatzea da, Arabako herritarren mesedetan. Eta 120 urtean zehar izan du konpromiso hori Arabako gizartearekin.

Sariaren bidez, Arabako Foru Aldundiak probintziako mediku guztien lana aitortu nahi du; izan ere, egunero-egunero egiten duten ahaleginari esker, Arabako medikuntzaren kalitatea handia da.

Hasierako urteetan elkargoan oinarritzat hartu ziren printzipioak indarrean daude 120 urte pasa ostean: elkargokideak antolatzea intrusismorik izan ez dadin, medikuen lanbidea eta profesionaltasuna defendatzea, Deontologia Kodea betetzen dela zaintzea, profesionalen etengabeko prestakuntza bultzatzea eta osasuna zaindu eta sustatzea, pertsona ororen lehentasunezko ondasun izan dadin.

Horregatik, azken urteotan ahalegin handia egin du gizartera hurbiltzeko eta medikuntzako topagune eta erreferentzia izateko.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren Gobernuak aitortza eta esker ona erakutsi nahi dizkio Arabako Medikuen Elkargoari, haren ibilbideagatik eta medikuen profesionaltasuna eta deontologia bermatzeko lurralde historikoan egin duen lanagatik.

2019an, ekitaldi solemne batean, Arabako Foru Aldundiak Arabako Domina, foru erakundeak ematen duen saririk handiena, emango dio.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren ohore eta goraipamen arautegia onartzen duen apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuak 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Domina Arabako Medikuen Elkargoari ematea, aitortzeko haren mendebeteko ibilbidea eta medikuen profesionaltasuna eta deontologia bermatzeko Arabako Lurralde Historikoan egin duen lan goresgarri eta emankorra.

Bigarrena. Domina 2019 emango zaio, horretarako berriaz antolatutako ekitaldi batean.

Gasteiz, 2019ko irailaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunizazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN